

Beste zenbait Iragarpen Ofizial Otros Anuncios Oficiales

HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA

ERABAKIA, 1993ko apirilaren 1ekoa, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Lehendakariarena, Epaitegiaren 1993ko apirilaren 1eko osoko bilkuraren akordioa ezagutarazten duena, 1993rako Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren enplegu publikoaren eskaintza onesten duena. 4133

EUSKO LEGEBILTZARRA

ERABAKIA, Eusko Legebiltzarreko Mahaiarena, Eusko Legebiltzarraren 1993rako enplegu publikoaren eskaintza onartuz. 4133

TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PUBLICAS

RESOLUCION de 1 de abril de 1993, del Presidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, por la que se hace público el Acuerdo del Pleno de este Tribunal de 1 de abril de 1993 que aprueba la Oferta de Empleo Público del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas para 1993. 4133

PARLAMENTO VASCO

RESOLUCION de la Mesa del Parlamento Vasco por la que se aprueba la oferta de empleo público del Parlamento Vasco para 1993. 4133

Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak Disposiciones Generales del País Vasco

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1474

84/1993 DEKRETUA, martxoaren 30ekoa, Euskal Autonomi Elkarteko Nekazaritzako Hustiapenen Errolda sortu eta arautzen dituena.

Euskal Autonomi Elkarteko Nekazaritza-Informaziorako Sistemaren Oinarriei buruzko urriaren 8ko 305/1985 Dekretuaren bidez, gure Autonomi Elkartean nekazaritza arlorako informazio sistema sendo bat sortu duen tresna eratu zen; eta, hain zuzen, euskal administrazio publikoek nekazaritza arlorako hasitako iharduera guztien kudeaketa egokia eta eraginkorra izateko garrantzirik handieneko baliabide bilakatu da tresna hori.

Une honetan, Europako Ekonomi Elkartearen Nekazaritza Politika Bateratuaren Berrikuntzaren ondorioz, Euskal Autonomi Elkarteko nekazaritzako hustiapenen Errolda sortuaz, hobetu eta osatu egin behar da egungo informazio sistema, Autonomi Elkarteko nekazaritza hustiapenak derrigorrez errolda horretan izena emanda gera daitezen eta, bai hustiapenek beraiek, bai bertako titularrek edozein sustapen neurri lortzeko ezinbesteko baldintza dutelako. Errolda hori sortzeak hustiapenekin eta bertako titularrekin zerikusia duen informazioa era eraginkorrez batzeko aukera eskaintzen du, nekazaritza arloa sustatu eta antolatzeko neurriak izapidetu eta emateko oinarrizko erreferentzia puntu izango baita.

Errolda horrek, halaber, nekazaritza hustiapenen eta bertako titularren eta euskal administrazio publi-

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

1474

DECRETO 84/1993, de 30 de marzo, por el que se crea y regula el Registro de Explotaciones Agrarias de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Mediante el Decreto 305/1985, de 8 de octubre, sobre Bases del Sistema de Información Agraria de la Comunidad Autónoma del País Vasco se configuró un instrumento que ha dado lugar a la existencia en nuestra Comunidad Autónoma de un sistema sólido de información del sector agrario, constituyendo un elemento de suma importancia para la gestión adecuada y eficaz del conjunto de actuaciones emprendidas por las Administraciones Públicas Vascas con destino al sector agrario.

En el momento actual, la Reforma de la Política Agraria Común de la Comunidad Económica Europea, conlleva la necesidad de perfeccionar y completar el sistema vigente de información mediante la creación del Registro de explotaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el fin de inscribir en el mismo las explotaciones agrarias de la Comunidad Autónoma con carácter obligatorio y como requisito imprescindible para acogerse a cualquier medida de fomento, tanto para las explotaciones como para sus titulares. La creación de tal Registro posibilita una eficaz integración de la información relacionada con la explotación y sus titulares, sirviendo de elemento básico de referencia para la tramitación y concesión de las medidas de fomento y ordenación del sector agrario.

Asimismo, este Registro supone la creación de un instrumento básico para establecer un sistema objetivo

koen arteko harremanetarako sistema objetibo bat finkatzeko oinarritzko tresna sortzen du, harreman horiek erraztu eta normalduz.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Nekazaritzako Foru Departamenduekin lankidetzan burutu da hori, arloko lanbide erakundeei eta sindikatuei, Nekazari Ganbarei eta Euskadiko A.E.-ko Nekazari Kooperatiben Federazioari entzun ondoren.

Ondorioz, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko martxoaren 30ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. atala. - Dekretu honen xedea Euskal Autonomi Elkarteko Nekazaritzako Hustiapenen Errolda sortu, antolatu eta arautzea da.

2. atala. - 1.- Erroldaren helburua Euskal Autonomi Elkarteko nekazaritzako hustiapenek bertan izena ematea da, horrela euskal administrazio publikoen tresna izan dadin, bai arloa antolatzeko eta ekonomiaren plangintza egiteko, zein estatistikak prestatzeko eta beste helburu batzuetarako, administrazio horien nekazaritza politikarako norabideen arabera; guzti horren ondorioz, administrazioek beren aginpideak zuzen erabiltzeko behar duten informazio guztia era iraunkorrez, bateratua eta eguneratua izan dezaten izango baita.

2.- Euskal Autonomi Elkarteko Nekazaritza-Informaziorako Sistemaren parte da Errolda hori, beti ere administrazioaren isilpekotasuna bermatuz.

3. atala. - Honako hauek jasoko dira Erroldan:

a) Euskal Autonomi Elkarteko nekazaritzako hustiapen guztiak, lurduinak edo lurrik gabekoak izan berdin dela, eta horietako titularra nor den kontuan hartu gabe.

Euskal Autonomi Elkarteko nekazaritzako hustiapentzat hartuko dira beren lurrik edo instalakuntzarik gehienak elkarteko lurralde eremuan dituzten hustiapen guztiak.

Lehengo lerroldian aipatutakoetan sartzen ez diren hustiapenetakoak izan eta Euskal Autonomi Elkartean kokatuta dauden lur eta instalakuntzak ere Erroldan eman beharko dute izena.

b) Hustiapenean gerta daitezen funtsezko aldaketa guztiak.

Erroldari dagokionez honako hauek hartuko dira funtsezko aldaketatzat: nekazaritzako iharduneari baja ematea, hustiapeneko titularra aldatzea, baita titularitate motak, hustiapenen kokapena eta helbidea, zein hustiapenen mugak aldatzea; eta orokorrean, 9. atalean azaldutako Izenemate Erroldako identifikaziorako moduluari eragin diezaien beste edozein aldaketa.

4. atala. - Derrigorrezkoa da nekazaritzako hustiapenak Erroldan izena emanda uztea, baita horien zehaztasunak eguneratzea eta zuzen ematea ere; eta ezinbesteko baldintza da horiek egitea, bai hustiapenen zein bertako titularren izenean edozein sustapen neurri lortzeko, zein zerga edo gizarite arloetako onurak lortzeko.

5. atala. - Dekretu honetan xedatutako ondoretarako, honako definizioak finkatzen dira:

de relación de las explotaciones agrarias y sus titulares con las Administraciones Públicas Vascas, facilitando y normalizando tales relaciones.

Su elaboración se ha realizado en colaboración con los Departamentos Forales de Agricultura de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa, y se ha consultado con las organizaciones profesionales y sindicales del sector, con las Cámaras Agrarias y la Federación de Cooperativas del Campo de Euskadi.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 30 de marzo 1993,

DISPONGO:

Artículo 1. - El presente Decreto tiene por objeto crear, organizar y regular el funcionamiento del Registro de Explotaciones Agrarias de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 2. - 1.- El Registro tiene como finalidad la inscripción de las explotaciones agrarias de la Comunidad Autónoma del País Vasco, como instrumento de las Administraciones Públicas Vascas para la ordenación del sector, la planificación económica, así como a efectos estadísticos y de cualquier otra índole con arreglo a las directrices de la política agraria de dichas Administraciones, de forma que las mismas dispongan de manera permanente, integrada y actualizada de toda la información precisa para el correcto ejercicio de sus competencias.

2.- El Registro forma parte del Sistema de Información Agraria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, garantizándose en todo caso la confidencialidad administrativa.

Artículo 3. - Serán objeto de inscripción en el Registro:

a) Todas las explotaciones agrarias de la Comunidad Autónoma Vasca con o sin tierras y con independencia de quién sea el titular de las mismas.

Se entenderá como explotación agraria de la Comunidad Autónoma Vasca toda explotación que tenga la mayor parte de sus tierras o instalaciones dentro de su ámbito territorial.

Además, también deberán inscribirse en el Registro las tierras e instalaciones ubicadas en la Comunidad Autónoma Vasca pertenecientes a explotaciones no incluidas en el párrafo anterior.

b) Las modificaciones sustanciales que se produzcan en la explotación.

A efectos del Registro serán modificaciones sustanciales: baja de la actividad agraria, cambios en la titularidad de la explotación, en el tipo de titularidad, en la ubicación y emplazamiento así como cambios en la delimitación de la explotación, y en general cualquier modificación que afecte al módulo identificativo de Registro de Inscripciones descrito en el Artículo 9.

Artículo 4. - La inscripción de una explotación agraria en el Registro, así como la actualización y exactitud de sus datos es obligatoria, siendo requisito imprescindible para acogerse a cualquier medida de fomento, así como para acogerse a beneficios fiscales o sociales, tanto en favor de la explotación como de sus titulares.

Artículo 5. - A los efectos de lo dispuesto en el presente Decreto se establecen las siguientes definiciones:

1.- Nekazaritzako hustiapena.

Hustiapeneko titularrak edo titularrek, nekazaritza-ekoizpenerako, enpresa lez antolatutako ondasun eta eskubide guztien batasuna, horixe da nekazaritzako hustiapena, batez ere merkaturatzeko helburuak badi-tu; berez batasun tekniko-ekonomiko bat izan behar da, orokorrean beti ekoizpen baliabide bertsuaz eta ku-deaketa bakar bat izaten dituen neurrian.

1.1.- Nekazaritzako ekoizpen ihardueratzat zehazki honako hauek hartzen dira:

a) nekazaritzako iharduerak, lorezaintza, negutegi-ko hazkuntzak, perretxikuenak eta hidroponikoak barne direla;

b) basoko iharduerak. Basoko ekoizpen ihardueratzat honako hauek hartzen dira: zura eta egurra ateratzea, landarak eta basoko bihi edo haziak ekoiztu eta/edo biltzea eta mendiaren azaleko lurretan oinarrituta egin daitezen iharduera erauzkitzaileak, baina meategikoak eta hidrologikoak kanpoan utzita;

c) abelazkuntza iharduerak, hegazti, untxi eta erlazkuntza barne direla, eta honako iharduera hauek baino egiten ez dituzten granjak: egun bateko txitoak hazteko arraultzak berotzen dituztenak, larrugintzarako aberreak hazten dituztenak edo heizarako espezieak ekoizten dituztenak.

1.2.- Honako hauek ez dira nekazaritzako hustiapentzat hartuko:

a) lurrik izan ez arren, nekazaritzako makinak utzita, kontratua edozein eratakoa dela ere, nekazaritzako ekoizpenerako lankidetzat ematen duten nekazaritzako enpresa laguntzaileak, edo nekazaritzako hustiapentan ohiz erabiltzen den beste edozein zerbitzu ematen dutenak;

b) lasterketarako edo gainean ibiltzeko zaldien hustiapenak, abere horiek bertan hazten ez badituzte;

c) lanerako edo garraiorako animalien hustiapenak, animalia horiek bertan hazten ez badituzte;

d) txakurtegiak, animalia dendak, hiltegiak eta antzerakoak;

e) era guztietako parke zoologikoen hustiapenak, bai preso zein aske dauden animaliak izan arren, eta animalien erakusketak;

f) norberari laguntzeko diren animaliak ekoizten dituztenak;

g) arrainazkuntzarako fabrikak eta itsasoko arrainen hazkuntzarako jarritako iharduerak.

1.3.- Nekazaritzako hustiapenekoak dira:

a) hustiapenari atxikitako lurrak, horien jabetza araubidea edozein dela ere; gaur egun lantzen ez direnak ere hor sartzen dira, nekazaritzarako badira, baita heizarako barruti pribatu lez hustiatzen direnak ere;

b) nekazaritzako lurrean jasotako eraikinak edo instalakuntzak, nahiz eta hustiapenari zuzenean lotuta egon ez;

c) hustiapenari atxikitako erabilera eta gozamen eskubideak;

d) hustiapenari atxikitako nekazaritzako lanabesak, tresnak eta makinak, bai oso-osoan zein zati baten atxikita daudenak;

e) hustiapenari atxikita dauden animalia eta beste ondasun eta eskubide guztiak, balio ekonomikorik badute eta hustiapeneko titularrarenak badira.

1.- Explotación agraria.

El conjunto de bienes y derechos organizados empresarialmente por su titular o cotitulares para la producción agraria, primordialmente con fines de mercado, y que constituya en sí mismo una unidad técnico-económica caracterizada generalmente por la utilización de unos mismos medios de producción y una única gestión.

1.1.- En concreto se consideran actividades de producción agraria:

a) Las actividades agrícolas, incluidas la floricultura, los cultivos de vivero, de setas y los hidropónicos.

b) Las actividades forestales. A tal efecto se consideran actividades productivas forestales la extracción de madera y leñas, la producción y/o recolección de plantas y frutos o semillas forestales y las actividades extractivas que, excluidas las mineras e hidrológicas, tengan como base superficial el monte.

c) Las actividades ganaderas, incluidas la avicultura, la cunicultura, la apicultura y las de las granjas dedicadas exclusivamente a la incubación de huevos para polluelos de un día, a la cría de animales para peletería o a la producción de especies cinegéticas.

1.2.- No se considerarán explotaciones agrarias:

a) Las empresas auxiliares agrarias que, no poseyendo tierras, cooperan a la producción agraria mediante la cesión, cualquiera que sea la forma del contrato, de maquinaria agrícola o la prestación de cualquier otro servicio empleado usualmente en las explotaciones agrarias.

b) Las explotaciones de caballos de silla o de carrera, salvo que se dediquen también a la cría de los mismos.

c) Las explotaciones animales de tiro o de trabajo, salvo que se dediquen también a la cría de los mismos.

d) Las perreras, los comercios de animales, mataderos y similares.

e) La explotación de parques zoológicos de todo tipo, tanto con animales cautivos como en libertad, y la exposición de animales.

f) Los criaderos de animales de compañía.

g) Las actividades de piscifactoría y los cultivos marinos.

1.3.- Forman parte de la explotación agraria:

a) Las tierras afectas a la misma, cualquiera que sea su régimen de tenencia, incluyendo las no cultivadas actualmente pero que conservan su vocación agraria y las explotadas como coto privado de caza.

b) Los edificios o instalaciones sobre el suelo agrario, aun cuando no estén directamente afectos a la explotación.

c) Los derechos de uso y disfrute afectos a la explotación.

d) Los aperos, instrumentos y maquinaria agrícola afectos a la explotación, ya sea de forma exclusiva o parcial.

e) Los animales y todos los demás bienes y derechos susceptibles de valoración económica afectos a la explotación que pertenezcan al titular de la misma.

2.- Hustiapeneko titularra:

Hustiapeneko titulartzat nekazaritzako iharduera betetzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa hartuko da, horretarako hustiapena osatzen duten ondasunak eta eskubideak enpresen erizpideen arabera antolatuta baditu eta hustiapenaren arrisku ekonomikoak eta horren kudeaketatik sor daitezkeen erantzukizun zibilak, zergetakoak eta gizartekoak bere gain hartu izan baditu.

Erroldako ondorioetarako soil-soilik, bereizketa hauek egin behar dira:

2.1.- Titular bakarra. Nekazaritzako iharduera pertsona bakar batek betetzen duenean, berarekin batera beste titularrik izan gabe.

2.2.- Beste batzuekin banatutako titulartasuna. Hustiapenaren kudeaketa eta arrisku ekonomikoa zenbait pertsonen artean banatuta dagoenean, hustiapenaren ekoizpen baliabide guztiak edo batzuk erabiltzeko eta gozatzeko eskubideren bat baldin badute. Kudeaketa edozein eginda ere, guztiok hartuko dute beren burua hustiapenaren kide titulartzat.

2.3.- Sozietate bat titular denean. Zenbait kide edo elkartekide biltzen dituen pertsona juridikoa denean hustiapenaren titularra. Dena delako sozietate modua arautzen duten estatuek edo arautegiak arautuko du titularitatea ere.

6. atala.- Errolda administraziorako izango da eta Lurralde Historiko bakoitzean aginpidea duten foru departamenduek kudeatuko dute.

Errolda Bulegoa kudeaketarako oinarritzko administrazio taldea izango da Lurralde Historiko bakoitzean.

7. atala.- 1.- EAEko nekazaritzako hustiapen bakoitzak bera atxikita dagoen udalerriri dagokion Lurralde Historikoko Erroldan emango du izena, 8. atalean finkatutakoarekin bat etorritz.

2.- Lurralde Historiko bitan edo gehiagotan kokatuta badago nekazaritzako hustiapenaren azalera, izapideak egiten ari den bulegoak jakinaraziko die beste bulegoei izena emateko ihardunbideari hasiera eman zaiola.

8. atala.- Hustiapen bakoitzari identifikaziorako zenbaki bat ezarriko zaio eta lurrik gehienak edo hustiapeneko eraikin edo instalakuntza nagusiak kokatuta dauden udalari atxikiko zaio. Lurrik gabeko abelazkuntza hustiapenak bere instalakuntzarik gehienak kokatuta dauden udalerriri atxikita daudela ulertu behar da.

9. atala.- 1.- Euskal Autonomi Elkarteke Hustiapenen Erroldak honako tresnak izango ditu bere eginkizunak antolatzeko:

a) Eguneko Erregistroa: aurkeztutako agiriak hartu direla eta Errolda Bulegoak egindako jakinarazpenak bertan jasoko dira;

b) Nekazaritzako Hustiapenen Izenemateen Errolda: izenematea hortxe egingo da folmalki. Errolda horrek bi modulu izango ditu, berdinak hiru Lurralde Historikoetarako:

1.- Identifikaziorako modulua: bertan nekazaritzako hustiapenari buruzko oinarritzko zehaztasunak, hustiapenaren titulartasunari atxikitako pertsona fisiko edo juridikoenak eta pertsona horien arteko titulartasunari dagozkionak jasoko dira.

2.- Titular de la explotación:

Se entenderá por titular de la explotación la persona física o jurídica que ejerza la actividad agraria, organizando los bienes y derechos integrantes de la explotación con criterios empresariales y asumiendo los riesgos económicos y las responsabilidades civiles, fiscales y sociales de la gestión de la misma.

A los efectos exclusivos del Registro se distinguirá entre:

2.1.- Titular individual. Cuando la actividad agraria es ejercida por una única persona física no existiendo cotitularidad.

2.2.- Titularidad compartida. Cuando varias personas comparten la gestión y el riesgo económico de una explotación, disponiendo de algún derecho de uso y disfrute sobre todos o parte de los medios de producción de la explotación. Independientemente de quien ejerza la gestión, todas ellas se considerarán cotitulares de la explotación.

2.3.- Titularidad societaria. Cuando el titular de la explotación sea una persona jurídica que agrupe a varios socios o asociados. La titularidad se regirá por los estatutos o normativa que regule la forma societaria de que se trate.

Artículo 6.- El Registro, que tendrá carácter administrativo, será gestionado por los Departamentos Forales competentes en el ámbito de sus respectivos Territorios Históricos.

La Oficina del Registro será la unidad administrativa básica de gestión dentro de cada Territorio Histórico.

Artículo 7.- 1.- Las explotaciones agrarias de la CAPV serán inscritas en el Territorio Histórico en el que estuviese ubicado el municipio al que la explotación se adscriba de conformidad con lo establecido en el artículo 8.

2.- Cuando la superficie de una explotación agraria esté ubicada en dos o más Territorios Históricos la oficina actuante pondrá en conocimiento del resto de las oficinas la iniciación del procedimiento de inscripción correspondiente.

Artículo 8.- A cada explotación se le asignará un número de identificación y será adscrita al municipio donde se ubiquen la mayor parte de las tierras o las edificaciones o instalaciones principales de la explotación. Las explotaciones ganaderas sin tierras se considerarán adscritas al municipio donde radique la mayor parte de sus instalaciones.

Artículo 9.- 1.- El Registro de Explotaciones Agrarias del País Vasco se organizará mediante los siguientes instrumentos:

a) Un Registro Diario en el que se hará constar la recepción de los documentos presentados y las comunicaciones realizadas por la Oficina del Registro.

b) Un Registro de Inscripciones de Explotaciones Agrarias en donde se realizará formalmente la inscripción. Este registro se compondrá de dos módulos, idénticos para los tres Territorios Históricos:

1.- Módulo identificativo en el que se reflejarán los datos básicos referentes a la explotación agraria, a las personas físicas o jurídicas ligadas a la titularidad de la explotación y los referentes a la relación de titularidad de aquellas.

2.- Azalpen modulua: bertan hustiapenaren eta berekin zerikusia duten pertsonen azalpenezko beste zehaztasun batzuk jasoko dira.

3.- Izenemateen Erroldari dagozkion moduluetao edukinak arautegi bidez zehaztuko dira.

10. atala. - Erroldan izenematea hustiapeneko titularraren eskariz egingo da eta, hori ezean, Errolda Bulegoak egingo du ofizioz.

11. atala. - 1.- Erroldan izena emateko eskabidea Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak finkatu dezan normaldutako ereduari egokituko zaizkion inprimakinetan egin beharko da, guztientzako administrazio ihardunbidea arautzen duten arauen arabera, 14. atalean oharmandakoa izan ezik, baita Dekretu honetan eta bere garapenerako arauetan finkatutakoaren arabera ere.

2.- Izena emateko eskabidea aurkezten den egunaren hurrengo hilabetearen barruan, bidezko iritzidatuzen egiaztapenak eta txostenak aurrez eginda, Errolda Bulegoak edo Erroldan sartuko du hustiapenaren izenematea edo ukatu egingo du, horretarako izan diren arrazoiak azalduz, eta eskegileari jakinaraziko dio hartutako erabakiaren berri. Organo eskudunak erabaki adierazirik eman gabe amaitzen bada erabakia emateko epea, 30/1992 Legearen 43.2. atalean oharmandakoa ondorio juridikoak sortuko ditu.

3.- Izenemateak Erroldan izango duen iraunaldia epemugarik gabekoa da, eta bere horretan jarraituko du harik eta ezestatu arte, bidezko diren aldaketak sarzearen kaltetan izan gabe.

12. atala. - Errolda Bulegoak ofizioz egin dezake nekazaritzako edozein hustiapenaren izenematea eta horri gertatutako funtsezko aldaketena, azken horien berri jasoteko izan dituen bideak edozeintzuk izanda ere; nolana ere, interesdunarekin elkarrizketa izango du aurretik.

13. atala. - 1.- Behin izenematea egin eta gero, erroldaratutako hustiapenaren titularrari edo ordezkari diren titularrei txartel pertsonalizatu bat emango die Errolda Bulegoak; aurrerantzean Hustiapen Txartela deituko zaio txartel horri eta bertan hustiapenaren titularra identifikatzeko zehaztasunak agertuko dira. Nekazaritzako administrazioek txartel hori aurkeztea eskatu ahal izango diote titularrari, bertan jasotako hustiapenari dagozkion kudeaketak eta izapideak egiteko.

2.- Hustiapeneko titularren artean ordezkari edo eskudun titular bat edo gehiago izendatu beharko dira, ordezkaritza egiteko.

14. atala. - Erroldaren ardura duen Bulegoak edozein unetan egin ditzake bidezko irizten dituen egiaztapenak eta, kasua etorriez gero, izenematean aldaketak sartuko ditu edo ezestatu egingo du, hustiapena desagertu egin dela edo izenematea egiteko beharrezko izan ziren baldintzak une horretan ez dituela betetzen egiaztatzen bada; nolana ere, interesdunarekin elkarrizketa izango du aurretik.

15. atala. - Foru Aldundiek eten gabe emango diote Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailari Erroldari buruzko informazioa, eta horrela erroldaren eguneratzea eten gabe bermatuta geldituko da Euskal Autonomi Elkarte osorako.

16. atala. - Erroldan dauden izenemateei, horien indarraldi eta eguneratzeari eta bertan agertzen diren zehaztasun guztiei buruzko egiaztapenak egingo ditu Errolda Bulegoak, Agiritegi eta Erroldetara joteko eskubidea zehazten duten arauetan agintzen den moduan.

2.- Módulo descriptivo en el que se reflejarán otros datos descriptivos de la explotación y del personal relacionado con la misma.

3.- Reglamentariamente se determinarán los contenidos de los módulos correspondientes al Registro de Inscripciones.

Artículo 10. - La inscripción en el Registro se practicará a petición del titular de la explotación y, en su defecto, de oficio por la Oficina del Registro.

Artículo 11. - 1.- La solicitud de inscripción en el Registro deberá realizarse en impresos ajustados al modelo normalizado que establezca el Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, con arreglo a las normas que regulan el procedimiento administrativo común, excepto lo previsto en el artículo 14, así como lo establecido en el presente Decreto y normas de desarrollo del mismo.

2.- La Oficina del Registro, dentro del mes siguiente a la fecha de presentación de la solicitud de inscripción, previas las verificaciones e informes que se estime procedentes, practicará la inscripción de la explotación en el Registro o acordará su denegación, señalando los motivos de esta última, notificándose la resolución adoptada al solicitante. El vencimiento del plazo de resolución sin que el órgano competente haya dictado resolución expresa, producirá los efectos jurídicos previstos en el artículo 43.2 de la Ley 30/1992.

3.- La vigencia de la inscripción en el Registro es limitada, manteniendo su vigencia mientras no se proceda a su cancelación, sin perjuicio de las modificaciones que procedan.

Artículo 12. - La Oficina del Registro podrá practicar de oficio la inscripción de una explotación agraria así como las modificaciones sustanciales que en la misma se realicen, cuando por cualquier medio tuviese conocimiento de las mismas, previa audiencia al interesado.

Artículo 13. - 1.- Efectuada la inscripción, la Oficina del Registro entregará al titular o titulares representantes de la explotación registrada una tarjeta personalizada, en adelante Tarjeta de Explotación, en la que constarán los datos referidos a la identificación del titular de la explotación, y cuya presentación por el titular podrá ser exigida por las Administraciones Agrarias para la realización de gestiones y tramitaciones referentes a la explotación recogida en la misma.

2.- De entre los titulares de la explotación se deberá nombrar, a efecto de representación, uno o varios titulares representantes o apoderados.

Artículo 14. - La Oficina encargada del Registro podrá realizar, en todo momento, las comprobaciones que estime pertinentes y proceder, en su caso, a las modificaciones afectas a la inscripción, o a su cancelación si se acredita la desaparición de la explotación o que la misma deje de reunir los requisitos necesarios para su inscripción, previa audiencia, en cualquier caso, al interesado.

Artículo 15. - Las Diputaciones Forales suministrarán al Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco de forma continuada la información del Registro garantizándose la permanente actualización del mismo a nivel de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 16. - La Oficina del Registro extenderá certificaciones respecto de la existencia, vigencia, actualización de las inscripciones y cuantos datos obren en el Registro, con arreglo a las normas sobre derecho de acceso a Archivos y Registros.

17. atala. - Nekazaritzako hustiapenei eta horiek osatzen dituzten gaiak dagokienez, egun dauden administraziozko errolda guztiak berrantolatu egingo ditu Nekazaritza eta Arrantza Sailak, nekazaritzako informazio sistema koordinatu eta taituzteko; ondorioz, lehengo erroldak aldatu, ezestatu edo oraingo Errolda honetan sartu ahal izango ditu goian aipatutako sailak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. - Dekretu hau garatu eta ezartzeko ahalmenak ematen zaizkie Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailari eta aginpidea duten foru organoei, bakoitzari bere aginpideen eremuan.

Bigarrena. - Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean Dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko martxoak 30.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Nekazaritza eta Arrantza Sailburua,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

Artículo 17. - El Departamento de Agricultura y Pesca procederá a la reorganización de los diferentes Registros administrativos existentes relativos a las explotaciones agrarias y a los elementos integrantes de las mismas, a fin de coordinar y racionalizar el sistema de información agraria, pudiendo proceder a la modificación, derogación o inclusión de los primeros en el presente Registro.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. - Se faculta al Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco y a los órganos forales competentes para el desarrollo y aplicación del presente Decreto en el ámbito de sus respectivas competencias.

Segunda. - El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 30 de marzo de 1993.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

Beste zenbait Xedapen Otras Disposiciones

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1475

AGINDUA, 1993ko apirilaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarena, ikastolei dagokienez, irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren 18. atalean definitutako ekonomi moduloko «c» kontzeptuari dagokionez, 1992-93 ikasturterako hezkuntza ituneen deialdiari ebazpena emateko dena.

Irailaren 8ko 293/1987 Dekretuan eta uztailaren 14ko 196/1992 Dekretuan xedatutakoarekin bat eginik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1992ko uztailaren 14ko aginduak, 1992-93 ikasturterako hezkuntza ituneetarako deialdia argitaratzen zuen.

Horren ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 1993ko urtarrilaren 28ko aginduak, 1992-93 ikasturterako hezkuntza ituneen deialdiari ebazpena ematen zien eta bere bigarren puntuan, ikastoletarako ekonomi moduloko «c» kontzeptua salbuetsi egiten zuen.

Oraingo erabaki honek, 1992-93 ikasturterako hezkuntza itunearen alderdi horretaz dihardu hain zuzen eta, bere zenbatekoak erabakitzeko, ituneen lege erregimenean ezarritako erizpideak eta ikastolak eta herri-eskola biltzeko zen 10/1988 Legearen babesean izenpetuak diren eta indarrean dirauten hitzarmenetatik datozenak hartu dira kontutan.

Ikastetxeek aurkeztu dituzten eskabideak aztertu ondoren eta lurralde ordezkariak dagozkien proposamenak egin ondoren, sail honek hau

DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

1475

ORDEN de 26 de abril de 1993, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se resuelve la convocatoria de conciertos educativos para el curso 1992-93 en lo referente al concepto «c» del módulo económico definido en el artículo 18 del Decreto 293/1987 de 8 de septiembre con respecto a las ikastolas.

La Orden de 14 de julio de 1992 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, publicaba la convocatoria de conciertos educativos para el curso escolar 1992-93 de conformidad con lo dispuesto en los Decretos 293/1987 de 8 de septiembre y 196/1992 de 14 de julio.

Posteriormente, la Orden de 28 de enero de 1993 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación resolvía la convocatoria de conciertos educativos para el curso escolar 1992-93 excluyendo en su punto segundo la resolución del concepto «c» del módulo económico para las ikastolas.

La presente resolución se refiere precisamente a ese aspecto del concierto educativo para el curso 1992-93, habiéndose tenido en cuenta para su cuantificación tanto los criterios establecidos en el régimen legal de conciertos como los que se derivan de los vigentes convenios particulares firmados al amparo de la Ley 10/1988 de confluencia de ikastolas en la red pública.

Examinadas las solicitudes presentadas por los centros docentes y realizadas las correspondientes propuestas por las Delegaciones Territoriales, este Departamento